



Ziortza-Bolibar Barrian

hari gara

ehbildu

Udaletxea denon etxe legez sentitu eta bizi nahi dugu. Udaletxea sortzeko, eztabaidatzeko, proiektuak adosteko eta gauatzeko lekua bilakatu nahi dugu.

Udal Programa
2015-2019



sarrera

EHbildu bigarren aldiz aurkeztuko da udal hauteskundeetara Ziortza Bolibarren, eta ilusio handiz heltzen diogu erronka honi.

Gure taldearen asmoa freskotasuna, elkarlana eta partehartzea bultzatzea dira. Herria herritarrekin batera eraikitzea da gure nahia. Guk udaleko atea herritar denei zabaldu nahi dizkiegu. Udaletxea denon etxe legez sentitu eta bizi nahi dugu. Udaletxea sortzeko, eztabaidatzeko, proiektuak adostu eta gauzatzeko lekua bilakatu nahi dugu.

Udalaren gestio irekia eta garbia bultzatu eta informazioa zabaldu nahi dugu.

Horretarako herritarrei gaien azterketa eta eztabaidarako guneak eskeintzera gatoz, herritarrek erabakiak hartzeko bitartekoak berreskuratuz.

Herriko indarrak batu eta herriari begira jartzea nahi dugu, auzolan eta elkarlanaren bidez.

Herriaren garapenak herritarren premia eta ongizateari erantzun behar diolakoan gaude.

Herritarren bizi kalitateari begira, espazio irekiak sortzea egokia ikusten dugu, herritarrek beren denbora libre eta bizitza soziala gozatzeko. Gure asmoa herritarren bizi kalitatea hobetzea da, ingurunearekin harreman orekatua bilatuz eta zerbitzuez hornituz.

Eraldaketa soziala eta Euskal Herriaren eraikuntza helburu duen proiektua aurrera eramateko konpromezua hartzen dugu.

Lau urte hauetan zuekin batera egin nahi dugu bidea. Denon parte hartzearekin eta denon indarrak bilduz Ziortza Bolibar eraikitzen (h)ari gara.

1. ALBERTO GARRO URIBE
2. SAIOA BILDOSOLA GERRIKABEITIA
3. ANA ROSA ARRIAGA JAIO
4. RAKEL GANDIAGA IRUSTA
5. JOSE ARANSOLO IBAIBARRIAGA
6. LANTZ MENDIZABAL RUIZ
7. JAVIER POLO GOMEZ
8. AIORA ARRIETA ASTORQUIA
9. JAVIER GERRIKAGOITIA OLABE
10. MARIA ITZIAR IRUSTA ARGOITIA





Ziortza-Bolibar Gorria

AUZOAK



- **Auzo bakoitzeko ordezkari bat** egotea auzo bakoitzeko beharrak eta problematikak elkarbanatzeko. Ordezkarri hauek, udalarekin beharren arabera bilerak egin.
- **Bilera hauek egiteko** maiztasun bat mantentzea egokia izango litzateke.
- **Ordezkarriak aukeratzeko**, auzo bakoitzean zerrenda bat aterako litzateke eta bozkaketen bitartez auzoko ordezkaria zein den aukeratuko litzateke.



Ziortza-Bolibar Gorria

TOKIKO EKONOMIA ETA ENPLEGUA

- **Herri eredu** kooperatiboa bultzatu.
- **Denda txiki** baten bideragarritasun ekonomikoa aztertu.
- **Herri lurren** erabilera herriari zabaldu. Ortu kooperatiboen proiektua

HIRIGINTZA

- **Herri hazkundera**, herriko beharren arabera egin.
- **Iruzubietatik elizaldera** bide gorria egitea bultzatu diru laguntzek ahalbideratzen duten einean.
- **Zinburuetan** barandua jarri.
- **Taxi-bus** zerbitzua auzoetara heltzen saiatu.
- **Frontoian** berogailuaren eta ekoaren arazoari irtenbidea bilatu.
- **Panel informatiboak** jarri auzoetan.
- **Usandiko iturria eta Beheko-Zubi** ingurua atondu.

“ Udaletxe zaharreko proiektua gaurkotu. Libre geratzen diren lokalen inguruko hausnarketa elkarte eta herritarren artean egin. ”





■ Ziortza-Bolibar Gorria

TURISMOA

“ *Gure herriaren izaera, kultura, hizkuntza, gastronomia eta patrimonio historikoa zainduaz turismoa bultzatzen ahaleginduko gara.* ”

- **Ingurumenarekin eta herriarekin** arduratsua den turismoa bultzatuko dugu.
- **Gure herriak** turismo ikuspegitik eskaini ahal duena jaso eta erakusten saiatuko gara. Gure ondare historikoa zaintzen ahaleginduko gara.



Ziortza-Bolibar Berdea

INGURUNEA

“ Ingurunearekin
errespetua oinarri duen
herri eredia
bultzatu. ”

- **Sortzen dugun** hondakin kopurua gutxitzeko pausoak eman eta birziklatzea handitzekoak.
- **Energia berriztagarrien** aldeko apustua egin.



“ Herri
basoak
eta uraren
jatorriak
ezagutu eta
zaindu. ”





Ziortza-Bolibar Horia

UDAL EREDU PARTE HARTZAILEA

“ *Herritarren parte hartzearekin pentsatu zer egin diru publikoarekin. Aurrekontuak denen artean erabaki eta onartu.* ”

GAZTEAK

- *Gazteen premiak ikusi.* Udaletxe eta gazteen arteko elkarlana bultzatu.

NAGUSIAK

- *Azterketa bat egin* premiak ikusteko. Irtenbideak bilatu udaletxe eta jubilatuen arteko elkarlanaren bidez.

EMAKUMEAK

- *Emakumearen benetako* parte hartzea ziurtatu bere ikuspegi, iritzi, ekarpen eta parte hartzeari leku eginez.




Ziortza-Bolibar Horia

GATAZKAREN KONPONBIDEA

GIZA ESKUBIDEAK ETA MEMORIA HISTORIKOA

- **Arrazoi politikoengatik** preso dauden Euskal herritarren giza eskubideak errespetatuak izatearen alde jardungo dugu.
- **Lehentasunezko** salbuespen neurriak ezabatzearen alde egingo dugu.
 - o Gaixotasun larriak dituztenak kaleratzea
 - o Preso eta senideak zigortzen dituen urrunketarekin amaitzea
 - o Euskal preso guztiak Euskal Herriratu eta legediaren arabera zigorra beteta dutenak kaleratzea.
- **Arrazoi politikoengatik** preso dauden edo sorterritik kanpo bizi diren Euskal herritar guztiak etxeratzearen alde jardungo dugu.
- **Elkarbizitza demokratiko** normalizatu baterantz lagunduko duen jarduna mantenduko dugu.
- **Gure herriaren** oroimen historikoa ezagutu, berreskuratu eta azaleratze lanean laguntza osoa emango dugu.





Ziortza-Bolibar Urdina

HEZKUNTZA ETA UMEAK



“ *Herri eskolaren proiektuaren gainean azterketa bat egin elkarte eta norbanako desberdinekin. Espazioak zabaltu eztabaida hau emateko herritarren artean.* ”

- *Hurtzaindegiaren proiektua* martxan jartzeko lehen pausuak ematen saiatu.





Ziortza-Bolibar Urdina

EUSKARA

euskaraz
bizi
nahi dut

“ *Euskara batzordea indartu. Ziortza-Bolibarko euskara jaso eta zaindu: bertoko esakerak, galbidean dauden berbak..Euskara ordenantzak. Euskeraren erabilera bultzatu.* ”

- **Udaletxea** HITZAren laguntzaile bihurtu.
- Kanpotik datozeinei eta euskalduntzeko daudenei, euskara ikasi eta erabiltzeko gonbidapena eta laguntza ekonomikoa zein komunitatekoa eskeini.







Ziortza-Bolibar Urdina

KULTURA ETA AISIALDIA

- **Udaleko lokalen banaketa** nola egin pentsatzeko espazioak zabaldu, proiektu bat landu elkarte eta norbanako desberdinekin. Horrela, kultura eta kirol eskaintza eta azpiegitura(kirol gunea) bermatzea bilatu herrian.
- **Simon Bolivar** museoaren eta herritarren arteko lotura indartu.
- **Jai batzordea indartu.**

“ Herri sormena eta euskal kultura bultzatu: udako eta neguko solstizioen inguruko ospakizunak indartu.”







■ Lea-Artibai

Lea Artibai eskualde txikia izanik eta Bizkaiko erdigunetik kanpo dagoenez beharrezkoa da udalherri guztiak batera lan egitea. Guk EH Bildutik Eskualdearen aldeko apustu irmoa egiten dugu eta horretarako gaur egun dauden mankomunitate bien arteko elkarlana bultzatuko dugu. Gure ustez gaur egun Lea Artibaiko mankomunitatean ditugun eskumenekin jarraitzeko apustua egiten dugu baina eragin-korrako bihurtuz, horretarako alderdien arteko talkak alde batera utziz. Aurrerantzean gure asmoa eskumen gehiago mankomunitatzea da beti ere herritarrei eskaintza hobea egiteko eta Lea Artibai justoago eta parekideagoa lortzeko.




RAKEL ELU BENGOETXEA
Lea-Artibaiko Amankomunazgorako lehendakariagaia

Bizkaitarron garaia da, herritarron garaia. Behetik gora eraikiko dugu Bizkaia barria

Iritsi da herritarrek bitzta publikoa erregulatzen duten prozesu guztien kontrola berreskuratzeko garaia. Badago eta beharra! Halaberharrez, klientelismoa, lagunkeria, zerga iruzurra edota ate birakariak bezalako hitzak gure hiztegiatara gehitu behar izan ditugu azken bolada honetan.

Bukatu da porlanean oinarritutako ekonomiaren garaia, etengabe zorpetu gaituen garapen eredu desarrollistaren garaia, tokiko ekonomia erreala ahuldu duten finantza ekonomia eskulatazaillearen garaia. Garaipen eredu orekatu, dibertsifikatu eta iraunkorrari bidea ireki behar zaio. Eraiki dezagun behetik gora Bizkaia barria!



JOSU UNANUE ASTOREKA
Bizkaiko Ahalduen Nagusirako hautagaia

EH Bilduk lau hankako Bizkaia barria proposatzen du:

- 1. Inor ez dadila bide bazterrean gelditu:** Pertsona guztien eskubide sozialak bermatu behar dira.
- 2. Bitzta ona helburu, trantsizio sozial eta ekologikoa:** XXI. mendeko Euskal Herriaren eredu produktiboa eta erreproduktiboa gaurdanik eraldatu behar dugu.
- 3. Gehien dutenek gehiago ordaindu:** Zerga politika progresibo eta ekitatiboaren alde egingo dugu.
- 4. Erabakiak hemen hartu. Dena erabaki dena aldatzeko:** Burujabetza behar dugu gure bizimoduetan eragin zuzena duten politika publikoak garatzeko.



Ziortza-Bolibar Barrian

hari gara

ehbildu

Maiatzaren 10ean domeka,
eguerdiko 13:15etan
Herri Zerrendaren aurkezpen ekitaldia.

